

Cartagenako kroskoa.

Iberiar penintsularen hego-ekialdean, Murtziako eskualdean, Cartagenako portua aurkitzen da, antzinatek joan-etorri handikoa.

Itsasgizon eta salerosle feniziar, puniko, erromatar, bizantziar eta hauen ondorengoek portu natural estrategiko honetako urak zeharkatu zituzten.

Cartagenako portuko sarrerak urpeko istorio asko gordetzen ditu bere uretan, ekaitz edo gerrako liskarrek eragindako hondoratzeen ondorio.

2007eta 2008an, ARQUA, Urazpiko Arkeologia Museo Nazionaleko arkeologoen, Aurora Trust Fundazioarekin elkarlanean, urrutiko antzemate teknikak erabili zituzten bi azterketa kanpainatan zehar.

Alboko ekortzeko sonar moderno baten erabilpenak Cartagenako badia sistematikoki miazteko aukera eman zien. Miatu eta esploratzeko aukera.

Ehun anomalia baino gehiago aurkitu zituzten, eta informatika programa konplexuen bidez dokumentatu.

Interes bereziko anomalia bat forma susmagarridun elkarte hau izan zen. Gainazal handia okupatzen zuen eta hondoaren gainean zein azpian tumulu bat eratzen zuen.

Espezialistek bertaraino hurbildu zen urruneko kontroleko ibilgailu bat erabili zuten, ikuskatu eta bere izaera egiaztatzeko.

Laster frogatu zuten ehunaka anfora zirela, eta barkuko kabinatik errobot telegidatuarekin filmatu eta argazkiak atera zizkieten.

Irudi hauek arkeologoei erromatar errepublika garaiko bi anfora mota gutxienez identifikatzeko aukera eman zieten.

Beraien formari esker, badakigu kalitate ezberdineko ardoa garraiatzen zutela, Kartago Novako mehatze famatuak ustiatzen zituzten familia italikoentzat ala bertan lan egiten zuten esklaboentzat izan.

Informazio honek itsasontzia Italiatik zetorrela ondorioztatzeko aukera ematen du, eta justu Cartagenako portuan sartu aurretik ondoratu zen, Kristo aurreko 1. mendean.

Portura iristean errobotak ateratako ehunaka argazkiak prozesatu ziren eta zamaren banaketa berregiteko aukera emango zuen kroskoaren argazki mosaiko bat eraikitzeari ekin zioten.

Krosko honen kontserbazio egoera egiaztatzeko, murgiltze teknika konplexu bat planifikatu zen.

Murgilari bakoitzak oxigeno eta nitrox gas nahasketa zeraman lau botila zeramatzen eta honek sakontasun handira jaitsi eta gainazaleraingoko igoera luzea segurtasunez egiteko aukera ematen zien, zenbait deskonpresio geldialdi eta guzti.

Hondora iristen ziren neurrian linternen argiak ehunka anfora argizatzen zituen iluntasunean, eta hauen azpian garraiatu zituen egurrezko itsasontziaren aztamaren bat egon zitekeen.

Bere hondoratzetik 2000 urte beranduago, anforak otarrainen bati ostatu ematen dien eta arrain ugarirentzat elikagai den itsas bizitza aberatsak estali ditu. Beraz, Cartagenako badiako itsaspeko ondare kultural zein naturalaren lekuko garrantzitsu dira.